

azpeitianzer?

udal aldizkaria

159. zenbakia
2013ko urria



Azpeitiak badu Plana

Udalak Azpeitiko Hirigintza Antolamendurako Plan Orokorrari behin betiko onarpena eman dio, urteetako gatazkari amaiera emanez.



Lanpostuak.
Udalak 5 langile kontratatuko ditu aldi baterako




Eneko Ibarguren
Bildu, EAJ eta Hamaikabatek aho batez onartu dute mozioa

ale honetan zer?

- 5 Euskara langabetuentzat
- 6 Sozio-ekonomia
- 7 Lanpostuak
- 8 Plan Orokorra
- 12 Motxak
- 13 Eneko Ibarguren
- 14 Agenda
- 16 Garraio publikoa

Argitaratzailea: Azpeitiko Udala
Egilea: Prentsa bulegoa
Argazkiak: EREGI, Euskara eta Komunikazioa

Diseinua: EREGI, Euskara eta Komunikazioa
Ale kopurua: 7.000
L.G: SS - 1148/91



telefono interesgarriak

Zentralita	943 15 72 00	Iturritxiki Ludoteka	943 15 11 79	Euskara Patronatua	943 81 45 18
Alkatetza	943 15 71 85	Txiki-Txoko Ludoteka	943 15 05 16	Udal Euskaltegia	943 81 19 47
Idazkaritza	943 15 71 98	Zapo Txoko	943 15 71 61	Lapatx Zabortegia	943 15 18 75
Kontuhartzailtza	943 15 71 89	Gazte Informazio Bulegoa (GIB)	943 15 71 60	Azpeitia Lantzen S.A.	943 15 71 83
Hirigintza	943 15 71 91	Eguneko Zentroa	943 15 74 96	Ingurugiro Etxea Fundazioa	943 15 17 13
Gizarte Zerbitzuak	943 15 71 92	Liburutegia	943 15 71 95	Tokiko Agenda 21	943 15 70 70
Kultura	943 15 70 68	Udaltzainak	943 15 13 13	Kontsumitzaileen	
Komunikazioa	943 15 79 82	Suhiltzaileak	112	Informaziorako bulegoa	943 15 71 93
Kirolak	943 15 00 95	Igerilekua	943 81 41 21	Baigera I	943 81 44 64
Parekidetasuna	943 15 79 28	Kiroldegia	943 81 30 69	Baigera II	943 81 23 89
Emakumeen Txokoa:	943 15 70 55	Izarraitz Pilotalekua	943 81 25 63	Ingurugiro Etxea Museoa	943 81 24 48

botika txandak

ALBERDI. Jose de Artetxe 6, Tel.: 943 81 59 74
Urriaren 10, 15, 18, 22 eta 24

ARANBURU. Plaza Nagusia - Goiko kalea 2
Tel.: 943 81 13 50
Urriaren 28, 29, 30 eta 31

BERISTAIN. Urbitarte auzoa 3, Tel.: 943 81 19 49
Urriaren 9, 14, 19, 20 eta 23

EIZAGIRRE. Enparan 29, Tel.: 943 81 12 74
Urriaren 12, 13, 16 eta 21

JACOME. Garmendi 21, Tel.: 943 08 02 58
Urriaren 8, 11, 17, 25, 26 eta 27

zerbitzuak eta erabakiak

zerbitzuak



Emakumeen Jabetze Eskolaren baitan, urria eta abendua bitartean emakumeen jabetzaren prozesua bultzatzeko ikastaro, prestakuntza interesgarri antolatu du Udaleko Parekidetasun sailak. Guztira bost ikastaro eta tailer desberdin prestatu dira:

- Argazkigintza ikastaroa (Itziar Bastarrika)
- Batukada (Ainara Sarasketa eta Arantxa Vicedo)
- Sabel dantza (Mirari Amenabar)
- Antzerki tailerra (Alaitz Olaizola)
- “Bellas a lo bestia” tailerra (Irantzu Varela)

Euskal Herriko Unibertsitateko sistema zaharreko ikasleek aukera askeko kredituak eskuratu ahal izango dituzte ikastaro hauen bidez eta behar duten emakumeek, haurtzaindegiz-zerbitzua izango dute aurretik eskatuz gero.

Egon daitezkeen zalantzak argitzeko edota izena emateko, herritarrek Emakumeen Txokora (943 15 70 55) edota Udaleko Parekidetasun sailera (943 15 79 28) dei dezakete.

erabakiak

Irailaren 17an egindako Udalbatzan honako erabakia hartu zen:

1. Azpeitiko Hiri Antolamenduaren Plangintza Orokorraren espedienteari behin betiko onarpena eman zitzaien Bildu eta EAJ taldeen aldeko botoei esker. Hamaikabatek aurka bozkatu zuen.

Urriaren 1ean egindako Udalbatzan hartutako erabakiak hauek izan ziren:

1. 2013ko uztailaren 2an egindako bilkurako akta onartu zen.
2. Juana Jauregi Cendoya zinegotziaren errenuntzia onartu zuten.
3. Azpeitia 2025 Plan Estrategikoa aho batez onartu zen.
4. 2013ko aurrekontuan laugarren kreditu aldaketa onartu zuten Bildu eta Hamaikabat alderdiek. EAJ abstenitu egin zen.
5. Azpeitiko herrirako zarata mapa egingo dela jakinarari zen.
6. Kultur arloko diru-laguntzen oinarri arautzaileak onartu ziren aho batez.
7. Festa arloko diru-laguntzen oinarri arautzaileak aho batez onartu ziren.
8. Euskara suspertzeko Urola Kostako Hitzari eta Uztariari dirulaguntzak arautzeko hitzarmenak Bildu eta Hamaikabat alderdien aldeko botoekin onartu ziren. EAJ aurka agertu zen.
9. Gizarte-bazterkeriako eta behar larriko egoerei aurre egiteko norbanakoei eta familiei emango zaizkien udal laguntzak: hezkuntza alorreko laguntzak emateko irizpideak finkatzea Bilduren aldeko bozkekin onartu zen. EAJ eta Hamaikabat abstenitu egin ziren.
10. 2014. urterako langileen jaiegunen egutegian Azpeitiko jai egunen berri eman zen.
11. 2013ko urtarilean, otsailean eta martxoan emandako ebazpenen berri eman zen.
12. Eneko Ibarguren azpeitiarraren atxilotetaren inguruko mozioa aho batez onartu zen.
13. Galdera eta erreguak.

Langabezian dauden azpeitiarrek doan ikas edota hobetu dezakete euskara Udal Euskaltegian

Udalak ordainduko du matrikula, ikasleak %85eko asistentzia izaten badu



Leire Etxaniz eta Kontxita Martija zinegotziak.

azpeitiko Udalak 2013-2014 ikasturtean euskara ikasi edota hobetu nahi duten langabetu azpeitiarrei laguntza berezia emango die. Horrela iragarri dute Kontxita Martija Euskara batzordeburuak eta Leire Etxaniz Gizarte Zerbitzueta batzordeburuak. "Milaka dira azken 30 urteotan Azpeitiko Udal Euskaltegian euskara ikasten ibilitako azpeitiarrak. Azpeitiar horietako asko eta askori lanerako aukera ere hortik etorri zaie; euskara ikastetik, alegia. Horregatik, gaur

egungo lan egoeraren beltza eta larria ikusita, Azpeitiko Udalak ate hori zabal-zabalik utzi nahi die langabezia egoeran dauden azpeitiar guztiei", azaldu du Martijak.

"Gaur egungo lan egoera beltza eta larria ikusita, Azpeitiko Udalak ate hori zabal-zabalik utzi nahi die"

Azpeitiko Udal Euskaltegiak ikasturte berrirako matrikulazioa urriaren 11 arte irekita dauka, ikasle guztientzat eta ikastaro guztietarako. Langabezian dauden herritarrek ere epe bera dute Udal Euskaltegiak eskaintzen dituen ikastaroetako batean izena emateko. Gainerako ikasleek ez bezala, ordea, izena ematerakoan ez dute ezer ordaindu beharrik izango: Udala egingo da langabetuen matrikularen kargu. Ikastaroa erabat doan izateko baldintza bakarra bete beharko dute,



ikasturtean zehar: asistentzia gutxienez % 85ekoa izatea. Azpeitiko edozein ikasleri itzultzen zaio matrikularengatik ordaindutakoa asistentzia maila horren truke; langabetuek, berriz, ez dute hasierako ordainketa hori egin beharrik izango.

Kontxita Martijak esan bezala, "Azpeitiko Udalaren asmoa da langabezia egoeran dauden azpeitiar guztiei euskara dohainik ikasteko aukera ematea.

"Udalak izena ematen duen langabe bakoitzari erantzun pertsonalizatua emango dio"

Ikastaro hauek antolatzeko, eta jakiteko zenbat diren euskara ikasi nahi duten langabetu azpeitiarrak, izena emateko epea zabaldua dago urriaren 11ra bitartean. Izen-ematea Azpeitiko Euskara Patronatua egin behar da epe horren barruan. Ondoren, Azpeitiko Udalak, dituen baliabideen arabera, antolaketarik egokiena egingo du ahalik eta langabe gehienei erantzuteko asmoz. Azpeitiko Udalak izena ematen duen langabe bakoitzari erantzun pertsonalizatua emango dio".

Eusko Jaurlaritzak 2013an Azpeitiko Udalarik %30 murriztu dizkio euskararen diru-laguntzak

Era berean, Euskara zinegotzia den Kontxita Martijak jakinarazi duenez Eusko Jaurlaritzak 2013an aurreko urtean baino %30 diru-laguntza txikiagoa emango dio euskararen sustapenerako. Eusko Jaurlaritzak 2012 urtean Azpeitiko Udalarik herrian euskara sustatzeko 27.774,15 euroko diru-laguntza ematetik 2013an 19.648 eurora jaitsi du laguntza, alegia, aurtan iaz baino 8.126,15 euro gutxiago jasoko ditu Azpeitiko herriak Jaurlaritzatik: %30 gutxiago.

"Gipuzkoako Foru Aldundiak, ordea, %26 handitu da laguntza"

Bestalde, Gipuzkoako Foru Aldundiak udalei euskara sustatzeko urtero ematen dien diru-laguntza ere jaso berri du Azpeitiko Udalak eta, kasu honetan, %26 handitu da laguntza hori. Alegia Azpeitiko Udalak 2012an 12.480 euro jaso zituen Gipuzkoako Foru Aldunditik eta aurtan, berriz, 16.400 euro: 3.920 euro gehiago. Dena dela, batekoz beste, aurtan iaz baino 4.206,15 euro gutxiago etorri zaio Azpeitiko Udalarik Eusko Jaurlaritzaren murrizketa horregatik. Diru hori; Jaurlaritzak jarri ez duen diru hori, Azpeitiko Udalak jarri beharko du.

Garapen sozioekonomikoa gizarte eragile guztien

lankidetzarekin **Diputazioak, Iraurgi Berritzenek, eta Gipuzkoako gainerako garapen agentziek eskualde arteko mahaia sortuko dute, gobernantza eredu berri bat garatzeko**



Eneko Etxeberria, Martin Garitano Ahalduen Nagusia, Juan Karlos Izagirre akordioa sinatzen

azken hamarkadetan gertatuko eraldaketa sozioekonomikoek agerian jarri dute orain arteko lurralde garapeneko politikek ez dutela eraginkortasunik eta molde berriak jorratu behar direla. Hala ondorioztatu dute Iraurgi Berritzenek, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta lurraldeko gainerako garapen agentziek. Azterketa teoriko guztiek erakutsi dute garapenerako ezinbestekoa dela gizartearen elementu guztiek parte hartzea, ekonomia eremutik haratago “lurralde kapitalera” salto egitea, eta pauso hori ematea erabaki: gobernantza eredu berri batera garatzeko akordioa sinatu dute eta eskualde arteko mahaia eratuko dute.

Lurralde kapitala osatzen duten elementuak ez dira jarduera ekonomikora soilik mugatzen, eta gero eta garrantzi handiagoa hartzen ari dira baldintza sozialak, ekonomikoak, kulturalak edo ingurume-

nekoak. Horregatik, Iraurgi Berritzenek gobernantza modu berrien aldeko apustua egingo du hemendik aurrera: bate-tik gizarte eta erakunde arloko udal eta eskualde mailako sareak sortuko ditu eta bestetik, udal eta eskualde mailako plan-gintza parte hartzailea egingo du.

“Azterketek erakutsi dute garapenerako ezinbestekoa dela gizartearen elementu guztiek parte hartzea ”

Krisi testuinguruan hartutako erabakia da: Udalen, garapen agentzien eta diputazioaren lehentasuna lurralde garapena eta gizarte eta ekonomia mailako kohesioa sustatzea denez, indarrak batu eta elkarlanean eredu berri alde baten egitea erabaki dute.

Egurraren sektorearen etorkizuna aztertzeke

Egurraren eta altzarien sektoreak bizi duen egoera zailari buelta nola eman. Hori da Urola Kidetuz proiektuaren helburua. Horretarako, bailara osoko eragileak sektorearen aukera berriak aztertzen ari dira, eta enpresen, banakako edo elkarren arteko proiektuak identifikatzen eta bultzatzen. Besteak beste, gizartearen zahartzeak sektoreari eskaini dakizkioken aukerak aztertu dituzte, eta hori lantzeko jardunaldi praktikoa egin zuten atzo, CIDEMCOren egoitzan.

Iaz baino %8 bisitari gehiago

Uztaila eta abuztuko hilabeteetan iaz baino %8 turista gehiago gerturatu ziren Loiolan dagoen eskualdeko turismo bulegora, batez ere taldekako bisita gidatuen igoerari esker. Uztailean etorri ziren taldekako bisita gehien, eta abuztuan, ohikoa den bezala, bere kabuz etorri ziren bisitari eta turistak gailendu ziren.

Jatorriari dagokionez, honakoak izan dira portzentaiak:

Hego Euskal Herria: %15
Katalunia: %9
Espainiar estatua: %54
Atzerria: %22

Gertuko turismoak egin du gora azken bi urtetako tendentzia jarraituz (%5 2012arekin alderatuz.

Bisitarien perfila kontuan izanda, badirudi Aita Santu berriaren izendapenak eta berau Jesulaguna izateak turistak gure eskualdera erakarri dituela: Loiolako Santutegia Euskal Herria ezagutzeko zirkuituak (touring) eta txangoak antolatzen dituzten bidai agentzi eta talde askoren agendan kokatu da, eta turismo bulegoan antzeman egin da hori.



Udalak bost langabetu kontratatuko ditu bost hilabeterako

Izena emateko epea urriaren 8ra bitartean egongo da zabalik

azpeitiko Udalak bost langabetu kontratatuko ditu. Lana bost hilabeterako eta lanaldi osokoa izango da eta kontratatutakoek egin beharreko lanak herrilan eta instalazio publikoak mantentzeko zerbitzuak, eraikin publikoak eraberritzeko lanak egitea, eremu hondatuak lehengoratzeko jarduerak eta berriz hiritartzeko lanak egitea... izango dira.

Gipuzkoako Foru Aldundiak udaletan enplegua bultzatzeko programa bat jarri zuen martxan uztailean, eta programa horren barruan egingo dira kontratazioak. Horrela, Diputazioak emandako diru-laguntzari esker, 5 langabetu kontratatu ahaliko ditu Udalak.

Hautagaiek bete behar dituzten baldintzak honako hauek dira:

1. Euskal Enplegu Zerbitzuan langabetu gisa izena emanda egotea.
2. Azpeitian erroldaturik egotea, oinarriak udaleko iragarki taulan publikatu baino gutxienez 6 hilabete aurretik.
3. Eskaerak aurkezteko epea bukatu aurretik 18 urte beteta izatea.
4. Zigorbidetzko zehaztapidetza bidez, Administrazio Publikoetako erakunde-zen zerbitzutik baztertutakoa ez izatea, eta administrazio publikoan jarduteko gaitasunaz gabeturik ez egotea.

5. Euskaraz hitz egin eta ulertzeko gai izatea.

6. B motako gida baimena izatea.

Izen-emate epea urriaren 8an itxiko da eta eskaerak Azpeitiko udalean aurkeztu behar dira 08:30etik 14:00etara bitartean. Aurkeztu beharrezko dokumentazioa ondorengoa da:

1. Eskaera inprimakia behar den bezala beteta
2. Nortasun agiriaren fotokopia
3. B motako gidabaimenaren fotokopia
4. Gizarte Segurantzak luzatutako eguneratutako “laneko bizitza” dokumentuaren kopia



Plangintza Orokorra onartu zen Udalbatza

Plana du Azpeitiak

Udalbatzak Hiri Antolamendurako Plangintza Orokorra behin betikoz onartu du

Urte luzeetako gatazkari irtenbidea ematen dion Plana du Azpeitiak, Udalbatzak iraileko plenoan Azpeitiko Hirigintza Antolamendurako Plan Orokorra behin betikoz onartu eta gero. Dokumentuaren aldeko botoak eman zituzten Bilduk eta EAJ taldeek eta Hamaikabatek, aldiz, kontra bozkatu zuen.

“Urte luzeetako gatazkari irtenbidea ematen dion dokumentua da”

Modu honetan, iazko uztailean emandako hasierako onarpenaren eta aurtengo otsailean emandako behin-behinekoaren ondoren, behin betiko onartu da datozen zortzi-hamar urteetarako Azpeitian indarrean izango den Hiri Antolamendurako Plangintza Orokorra.



Herritarrek egingako bilera bat udaletxean

Eneko Etxeberría alkatea pozik agertu zen, eta modu batera edo bestera parte hartu duten norbanako eta taldeak zoriondu ditu: “Azkenean Azpeitiak badu plana. Hirigintza Antolamendurako Plangintza Orokorra herri batek etorkizunerako daukan tresna garrantzitsua da dudarik gabe, herria fisikoki nolakoa izango den esaten duen dokumentua baita. Agintaldia hasi genuenetik oso presente eduki dugu hori, eta denbora asko hartu dugu horretarako. Zorionak beraz denoi, lan asko egin dugu eta”, agertu zuen Udalbatzan.

Prozesu guztiek bezala, Plan Orokorrak bi zati izan ditu; batetik, formal eta bestetik, edukia. Zati formalari dagokionez, hau da, bilerak, eragileekin, alderdiekin, teknikoekin, onarpenak, faseak administratiboak, onarpenak udalbatzan, esposizio publikoak,

alegazioak... herritar eta eragileen partaidetza bermatu dela agertu du alkateak: “Gure iritziz, denei eman zaie parte hartzeko aukera eta gainera egokitasunez bete da aspektu formal.

“Parte-hartzeari dagokionez, eredugarria izan dela uste dugu”

Beti dago gehiago egiterik, beti, beti dago gehiago sakontzerik parte hartzean. Eta bai, inoiz ez da nahikoa. Baina kasu honetan eredugarria izan dela uste dugu”.

Bigarren zatia edukiarena izan da eta atal honetan nabarmenena, eremu

gatazkatsuen askatzea lortu dela azpimarratu du Etxeberriak; “Plana goitik behera eztabaidatu da. Eta eremu gatazkatsuen aztertu eta adostu dira. 1998tik adostasunik gabeko planik gabe geunden. Eta eragile diferentek urteotan aurrerapausoak eman badituzte ere, seguruenez hainbat eremutan eta hainbat erabaki oso sinpleak eta eztabaida gabekoak izan direlako: adibide gisa, inoiz ez da eztabaida modu gatazkatsuan, edo behintzat ez dira iritzi kontrajarriak aurkitu, Sanjoandegiren edo Damasoren inguruko konfigurazioan... eta hemerrotekak hor daude, eta alderdien eta politikarien deklarazioak. Aldiz, eremu batzuek oso oso gatazkatsuen izan dira. Eta urteetan Plana eremu horietan ataskatu da: iritzi kontrajarriak baino gehiago ezin uztartuak aurkitu gara. Eta Udal Gobernu honek askatzea lortu du”.

Ardatzak

Hiri Antolamendurako Plan Orokorren harira, lau ardatz nabarmendu nahi ditu Eneko Etxeberria alkateak:

1. Plan honen onena etorkizuna da. Etorkizuna marraztu egiten du eta sendotasunarekin gainera. Udala kinka larrian egon da urte askotan bai ardura aldetik eta bai ekonomikoki, Udaleko tresna garrantzitsua baliogabetuta egon baita (honek ekarri dituenarekin; lizentziak ezin eman, eztabaida judizialak...) eta Plan honi esker; hau guztia gaingitu egiten da. Gatazka guztiei eta herritarrei irtenbidea

eta babesa ematen zaie, babes juridiko osoarekin.

2. Plan honetara iristerako orduan, puntu batzuetan erraztasunez lortu dira adostasunak, guztiok ados geundelako. Baina badira beste eremu batzuk oso oso gatazkatsuak izan direnak, 15 urtez korapilatuta egon direnak, eta oztopatzen zuten korapilo denak askatzea lortu da. Jauzi kualitatibo oso garrantzitsua egon da beraz.

3. Plana onartu zen Udalbatzan esan bezala, Planak izen-abizenak ditu;

alkatearenak. Nik hartzen dut ardura guztia, argi eta garbi. Aurrez gertatu direnak kontutan hartuta, alkate bezala arduradun egiten naiz edozein arazoren aurrean.


4. Eduki aldetik, oso egokia dela deritzot. Aurretik, mahai gainean izan diren gainontzeko planak baino egokiagoa; herri barrura hazteko ahalegina egin da, errealitateari lotutako etxebizitza kopurua aurreikusten da, etxebizitza sozialen aldeko apustua egiten da. Era berean, Corrugados enpresaren egoera ere aintzat hartzen du.



Historia

Azpeitiko herria urte luzez Hiri Antolamendurako Plan Orokorrik gabe egon da, horrek sortu dituen gatazka eta arazoak asko izan direlarik. Gainera, Udala kinka larrian egon da bai ardura aldetik eta bai ekonomikoki. Jarraian, Hiri Antolamendurako Plan Orokorren historia eta kronologia agertzen dugu:

- 1992 urtean Azpeitiko Plangintza Orokorra onartu zuen Udalak
- 1998 urtean Plana aldatu zuen Udalak, errebisio bat eginez
- 1999 urtean Auzaraza eremuko auzia hasi zen
- 2006 urtean Plan Berezia onartzen da
- 2007 urtean Lurzoruen Planeamendurako Arau Osagarriak behin-betiko onartu zituen Udalak
- 2008ko azaroa: EAEko Auzitegi Nagusiak balio gabe utzi zituen Udalak onartutako Arau Osagarriak
- 2009-07-24: Hiri Antolamendurako Plangintza Orokor berria egitea onartu zuen Udalak
- 2012-11-07: 2007ko Arau Osagarrien berrazterketa baliogabetu zuen Espainiako Auzitegi Gorenak
- 2013-09-17: Hiri Antolamendurako Plangintza Orokorra behin betiko onartzen du Azpeitiko Udalak



Kale-garbiketaren hasiera atzeratu da

denon Artean parte-hartze eta Alde Zaharra Biziberritzeko prozesuen baitan egindako bileretan, herritarrek kale-garbiketarak eragiten dituen zaraten inguruan kexatu ziren. Batik bat Alde Zaharra eta Paulo VI auzotarrak izan ziren kexak agertu zituztenak eta garbiketa lanak atzeratzea edota aldatzea eskatu zen. Gaia aztertu ondoren, Azpeitiko Udalak kale-garbiketa lanak 30 minutu atzeratzea erabaki du, horrela, 6:30ean hasi beharrean, 7:00etan hasten dira garbitzaileak orain lanean. Aldaketa honekin, herritarren eskaerei erantzuna emateaz gain, azpeitiarren bizi kalitatea hobetzea espero du Udalak. Gainera, ibilbide aldaketa eta beste hainbat neurri ere aztertzen ari da Udala, garbiketa ahalik eta eragozpen txikienarekin egiteko.

Haurrentzat komunak



azpeitiko Udalak obrak egin ditu abuztuan zehar Azpeitiko Ikastola Karmelo Etxegarain, Euskalerria auzoko Udal eraikinean. Ikastetxeak berak eskatuta, Haur Hezkuntza 2ko lau gelen barruan komunak egokitu dira, haur txikien eta irakasleen eraginkortasuna eta erosotasuna lortzeko asmoz. Azpeitiko Ikastola Karmelo Etxegarai, beriz, bere gain hartu ditu gela hauen intsonorizatzeko obra, altzari berrien ezarpena eta iturgintza lanak. Udalak 21.000 euro ordaindu ditu eta Eusko Jaurlaritzak aurten Hezkuntza Publikoko Udal eraikinak egokitzeko zituen diru-laguntzak kendu izana salatzen du, aurrerantzean udalen eta ikastetxeen gain utziz gastu guztiak.

Eskaerari erantzunez, haur parkea Etxebeltzen



denon Artean aurrekontu parte-hartzaileen baitan, Etxebeltz auzo berriko bizilagunekin egindako bileran jasotako eskaera nagusiari erantzunez, Azpeitiko Udalak haur parkea jarri du auzoan. Jolastoki berria abuztuaren hasieran ezarri zuen Udalak eta 21.000 euroko aurrekontua izan dute lanek.

“Gure Inguruari Begirada bat” lehiaketa

urtero bezala, *Gure inguruari begirada bat* argazki lehiaketa martxan da jada eta interesatuek azaroaren 8ra arte dute euren lanak aurkezteko epea. Azpeitia eta Azkoitiko Ingurumen sailek antolatzen duten lehiaketaren aurtengo gaia Naturaren ikuskizuna da eta antolatzaileek 100 euroko hamabi sari banatuko dituzte argazki onenen artean.

Eneko Ibarburen lehenbailehen aske uzteko eskatu du Udalbatzak

Udaleko hiru alderdiek aho batez onartu zuten mozioa



Eneko Ibarburenen mozioa onartu zen Udalbatza

urriak 1ean Ohiko Udalbatza egin zuen Udalak eta bertan, Bildu, EAJ eta Hamaikabat alderdiek aho batez onartu zuten Eneko Ibarburen azpeitiarra libre uzteko eskatzen duen mozioa. Ibarburen herritarra Herrira mugimenduaren kontrako operazioan atxilotu zuten irailaren 30ean, beste 17 pertsonekin batera, ETAko kideen omenaldiak eta presoengatik ongi-etorriak antolatzea leporatuz.

Udalak onartutako mozioa honako hau da:

1.- Elkartasun guztia eta babesa helarazi nahi diogu Eneko Ibarbureni, bere senitarteko eta lagunei, eta beste atxilotu guztiei.

2.- Gure kezka agertu nahi dugu atxiloteta honek suposatzen dituen ondorio pertsonal nahiz politikoengatik. Eneko Ibarburen lehenbailehen aske gelditze-ko eskatzen dugu, giza eskubideen defentsan aritzea ez delako delitua.

3.- Euskal Herriak bere etorkizuna bide demokratikoen bitartez eraiki nahi du. Baina, Eneko Ibarburenen atxilotetaren atzean Espainiako Estatuak agertzen duen jarrerak gure herrian pizturik den bake esperantza zapaltzeko asmo irmoa erakusten du eta Udalak bere kezka adierazi nahi du.

4.- Une politiko honek duen garrantziaz jabeturik, Espainiako Gobernuari iraganeko politikak alde batera utzi eta

euskal bake prozesuaren alde jarduteko eskaera luzatzen diogu.

5.- Azpeitiko Udalak giza eskubide guztien alde eta euskal presoengatik eskubideen defentsan lan aktiboa egiten jarraitzeko konpromisoa hartzen du.

6.- Herritarrei deia luzatzen diegu atxiloteta hauen aurka deitutako diren protesta ekintzetan parte hartzeko, besteak beste, herrian ostirala (urriak 4ean) deitutakoak, eta larunbata, urriak 5ean, Bilbon deitutako manifestaldian. Azpeitiko Udalak bando bitartez ekitaldi horietan parte hartzeko deialdia egingo du.



7, astelehena

GOINETXE FUNDAZIOKO
LANTALDEAK GARAGUNEKO
ESKULANEKO ERAKUSKETA
Ordua: 10:00etatik 12:15era
Lekua: Betharram Aretoa

8, asteartea

GOINETXE FUNDAZIOKO
LANTALDEAK GARAGUNEKO
ESKULANEKO ERAKUSKETA
Ordua: 10:00etatik 12:15era
Lekua: Betharram Aretoa

9, asteazkena

GOINETXE FUNDAZIOKO
LANTALDEAK

GARAGUNEKO
ESKULANEKO ERAKUSKETA
Ordua: 10:00etatik 12:15era
Lekua: Betharram Aretoa

10, osteguna

GOINETXE FUNDAZIOKO
LANTALDEAK

GARAGUNEKO
ESKULANEKO ERAKUSKETA
Ordua: 10:00etatik 12:15era
Lekua: Betharram Aretoa

11, ostirala

GOINETXE FUNDAZIOKO
LANTALDEAK

GARAGUNEKO
ESKULANEKO ERAKUSKETA
Ordua: 10:00etatik 12:15era
Lekua: Betharram Aretoa

PAREKIDETASUN
SAILAK ANTOLATUTA:
Tailerra: elektrizitatea etxean
Irakaslea: Ainara Pie de Hierro

Lekua: Emakumeen txokoan
Ordua: 18:00-20:00
GARAGARDO AZOKA
BERDURA PLAZA

12, larunbata

ZEZEN BELTZEN V. ASTEBURUA
12:00: Entzierro txikia – Erdi kaletik
plaza nagusira
Ondoren zezen-txiki eta poniak plazan

Arratsaldean: Zezen plazan ekitaldia
Jolasakamaitu ondoren Elektrotxaranga
herriko kaleetan zehar

GARAGARDO AZOKA
BERDURA PLAZA

13, igandea

UDAL MUSIKA BANDA
KONTZERTUA

ZEZEN BELTZEN V. ASTEBURUA
12:00 Entzierro txikia – Erdi kaletik
plaza nagusira
Ondoren zezen txiki eta poniak plazan
12:30etan Txahal saiheski erretzea eta
dastatzea plazan
Sahieski erreketak Plaza Nagusian
17:00etan Zezen Enbolatuak Artzubia
Etorbidean

ORGANO
ERROMANTIKOAREN
NAZIOARTEKO XIV ZIKLOA
Organoa: Bernhard Marx
Ordua: 20:00
Lekua: Loiolako basilika

14, astelehena

NATURALEZA VIVA ERAKUSKETA
Ordua: 18:00etatik 20:00etara
Lekua: Betharram Aretoa

15, asteartea

NATURALEZA VIVA ERAKUSKETA
Ordua: 18:00etatik 20:00etara
Lekua: Betharram Aretoa

16, asteazkena

NATURALEZA VIVA ERAKUSKETA
Ordua: 18:00etatik 20:00etara
Lekua: Betharram Aretoa

17, osteguna

NATURALEZA VIVA ERAKUSKETA
Ordua: 18:00etatik 20:00etara
Lekua: Betharram Aretoa

18, ostirala

NATURALEZA VIVA ERAKUSKETA
Ordua: 18:00etatik 20:00etara
Lekua: Betharram Aretoa

TOPAKETA FEMINISTAK
AZPEITIKO BILGUNE FEMINISTAK
ANTOLATUTA
18:00. Historia mugimendu
feministaren ekarpenak historian
zehar gure herrian. Herriko historiari
errpaso bideo emanaldia eta
mahai ingurua. 70. hamarkadatik
mugimendu feministan ibili diren
emakumeekin. Emakumeen txokoa

19:30 Bertso triki poteoa Emakume
Txokotik abiatuta. Segidan,
luncha, Udaletxeko arkupetan

19, larunbata

MENDI IRTEERA
LAGUN ONAK M.B-ak antolatuta:
ERRIOXA

TOPAKETA FEMINISTAK AZPEITIKO
BILGUNE FEMINISTAK ANTOLATUTA

9:00-11:30 Mahai ingurua,
Errealitatearen aurkepe desberdinak
aztertuz gai hartuta. Sektore
desberdineko emakumeek hartuko
dute parte: gazteak, pentsionistak,
etorkinak, zaintza lanetako langileak
eta indarkeria kasuak lantzen dituen
gizarte teknikaria.
Ekamueen txokoan

11:30-12:00 Hamaiketakoa

12:00-14:00 Gorputzaren inguruko
tailerra
14:00-16:00
Bazkaria, Udaletxeko arkupetan
16:00-18:30
Feminismotik herria aldatzeko
egiten den lanketaren gaur egungo
errealitatea eta etorkizuneko eronkei
buruzko jardunaldia. Emakueen
txokoan
18:30-19:30 Plenarioa eta Topaketen
balorazioa
19:30-21:00 Jolaztuz, etorkizunari
eragiten. Emakueen txokoan
21:00 Afaria
Gauean kontzertuak

XXXI.URRAKI IGOERA
Escuderia Lagun-Artea
Antolatzailea: Escuderia Lagun -Artea
Topalekua: Epaitegi-Enparantza

NATURALEZA VIVA ERAKUSKETA
Ordua: 12:00etatik 14:00etara
Lekua: Betharram Aretoa

"JESUS GAUR" hitzaldia
Hizlaria: J. Antonio Pagola
Lekua: Soreasu antzokia
Ordua: 10:00etan

ORGANO
ERROMANTIKOAREN
NAZIOARTEKO XIV ZIKLOA

Organo Ikasleen kontzertua
Ordua: 11:30
Lekua: Loiolako basilika

20, igandea

MENDI IRTEERA
LAGUN ONAK M.B-ak antolatuta:
MENDI BIZIKLETAZ IRTEERA
NATURALEZA VIVA ERAKUSKETA
Ordua: 12:00etatik 14:00etara
Lekua: Betharram Aretoa

XXXI.URRAKI IGOERA
Escuderia Lagun-Artea
Antolatzailea: Escuderia Lagun -Artea
Topalekua: Epaitegi-Enparantza

ZEZEN BELTZEN V. ASTEBURUA
12:00 Sokamutur txikia, ondoren zezen
txiki eta poniak Plaza Nagusian
16:30etan Sokamuturra
ORGANO

ERROMANTIKOAREN
NAZIOARTEKO XIV ZIKLOA
Bakarlaria: Mariatxen Urkia
Tronpeta: Jon Aramendi
Organoa: Jose Luis Franzesena
Ordua: 20:00
Lekua: Loiolako basilika

21, astelehena

NATURALEZA VIVA ERAKUSKETA
Ordua: 18:00etatik 20:00etara
Lekua: Betharram Aretoa

22, asteartea

NATURALEZA VIVA ERAKUSKETA
Ordua: 18:00etatik 20:00etara
Lekua: Betharram Aretoa

23, asteazkena

NATURALEZA VIVA ERAKUSKETA
Ordua: 18:00etatik 20:00etara
Lekua: Betharram Aretoa

24, osteguna

NATURALEZA VIVA ERAKUSKETA
Ordua: 18:00etatik 20:00etara
Lekua: Betharram Aretoa

25, ostirala

V.TUBA JAIALDIA AZPEITIAN

26, larunbata

ARDO EGUNA
Plaza Nagusian

V.KROS MIXTOA
Antolatzailea: Ikasberri K.E.
Irteera/amaiera: Enparantza nagusia
Distantzia: 6,700 km
Ordua: 18:00

IV.TUBA JAIALDIA AZPEITIAN

27, igandea

MENDI IRTEERA
LAGUN ONAK M.B-ak antolatuta:
ETXARRI ARANAZ- LIZARRUSTI

ANTZERKIA: MANOS K RIEN
Ordua: 19:00etan
Lekua: Sanagustin Kulturgunea

III.XAKE AZPEITIKO HIRIA-2013

Antolatzailea: Anaitasun kakute taldea/
Udal kirol saila
Tokia: Udaletxe azpian
Ordua: 10:00

31, osteguna

XXXI.EUSKAL ANTZERKI
TOPAKETAK
ANTZERKI TOPAKETEN IREKIERA
GABRIELEN LEKUA ikuskizuna
SOREASU ANTZOKIA
Goizean: ikastetxeetako gaztetxoentzat.
Gaueko 21:30ean



Garraio publikoa erabili ezazu!

Autobus zerbitzuen eskaintza zabala duzu eskualdeko udalerrietara zein kanpora joateko, beraz, ez dago aitzakiarik. Utzi autoa eta erabili autobusa.



Plaza Nagusia, 5 • Tel.: 943 15 72 00 • www.azpeitia.net

